

## **MORFOLOGÍA DEL VERBO AUXILIAR VASCO**

**Pedro de Yrizar**

*Baionan 2003ko urtarrilaren 31n*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Jaun Andereak, egun on.

Eskerrak emanez hasiko dut ekitaldi hau, lehen aldikotz agertzen baita Euskaltzaindia Kontseilu Orokorrak Baionan duen egoitzako areto nagusi honetan. Eskerrak beraz, Kontseilu Orokorreko buruari eta bereziki etxe honetako arduradun andereari.

Agurtzen ditut prentsa, irrati eta telebistako kazetariak erantzun dutelakotz gure gomitari, agurtzen ere eta hau manera bereziki batez Pedro de Yrizarren semea, Madrildik etorria ekitaldi honetara eta Pedro de Yrizar bere obra guzian lagundu duen Artola jauna. Pozik ikusten zaituztet gure artean Iparraldeko hiru probintzietako aditzari buruz aurkezten ditugun sei liburukiak.

Denok ulertuko duzue zertako ez denez gurekin Pedro de Yrizar jauna. Alabaina sortua da Azkoitian 1910ean eta, beraz, 93 urte ditu. Industria ingeniari eta Ekonomia ikasketak egin zituen Madrilen, han kokatu eta familiatu. Baina ez baitu sekulan ahantzi bere sorterrria euskal dialektologiari buruz egin eta agertu ditu artikulua asko. Ez ditut hemen denak aipatuko, al-diz Euskal Herria osoari eskaini dion lan nagusia, hamalau liburukitan banatua: *Morfología del verbo auxiliar...* Euskal Herriko zazpi eremuak biltzen dituela.

Egun, hemen, aurkezten ditugu sei liburukiok erakusten dute zertan den orain aditz laguntzailea Lapurdin (2 liburuki), Baxenabarren (3 liburuki) eta Zuberoan (liburuki bat). Bonaparte-ren ildotik ibili da gure ohorezko euskaltzaina, inkestak eginez lekukoak bilatuz –haietarik bat izana naiz Baigorriko hizkerarako– laguntzailea ona zuela jadanik aipatu dudana Artola jauna.

Obra ikaragarria, obra mirezgarria uzten digu Pedro de Yrizar jaunak, azterketa sakon eta zientifiko honen bitartez. Hain zuzen uztartuko da Euskaltzaindiak egiten duen Euskal Herriko hizkuntz Atlasarekin. Pedro de Yrizarren

obra nagusia publikatuz, Euskal Herriko hizkuntz Atlasa eginez, Euskaltzaindiak erakusten duen euskalkiez arduratzen dela ez dituela batere arbuiatzen, beren toki osoa badutela euskara batuaren ondoan, beharrezkoa dugularik euskaldun guziak biltzen dituen hizkuntz amankomun bat.

Zorionak, bihotz bihotzez Pedro de Yrizar eta Artola jaunei.